

JARRAIBIDE ORRIA

EZ IDATZI EZER, MEGAFONIAZ AGINDUA EMAN ARTE


- Utzi NANA mahai gainean, ondo ikusteko lekuan. Ariketak dirauen bitartean, hor egon behar du.
- Itzali eta gorde sakelako telefonoa. Ez da onartuko ordulari programagarririk, interneterako sarbidearekin edo antzekorik.
- Mahaiaren gainean, eman dizugun materiala, azterketan zehar banatzen dena, NANA eta boligrafoa besterik ezin duzu eduki.
- Probak dirauen bitartean isiltasun osoa egon behar da. Norbaitek ezegoki jokutzen badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko zaio.

ESPEZIALITATEA EGIAZTATZEKO PROBA

1. Proba irakurgailu optikoarekin zuzenduko da; horregatik, **laukitxoak behar bezala markatu** behar dituzu, **espazioak osorik betez**, orrian bertan adierazten den bezala. Egokiro markatutako erantzunak bakarrik hartuko dira kontuan.
2. Erantzunak **boligrafo urdinez edo beltzez** markatuko dira.
3. Galdera bakoitzak lau erantzun-aukera ditu, A, B, C eta D letrekin adieraziak. Galdera bakoitzeko erantzun bakarra da zuzena. Egiaztatu koadernotxoan dagokion zenbakiaren arabera erantzuten diozula galdera bakoitzari.

Adi! Okerrik egiten baduzu eta erantzun bat ezeztatu nahi baduzu, beheko lerroan (ANULAR/EZEZT) ezeztatu nahi duzun aukeraren laukia bete behar duzu, eta berriz markatu goiko lerroan zure ustez zuzena den aukera. Arreta jarri erantzun zuzena markatzean (ikus hurrengo adibidea).

Begiratu aurreko aukera nola baliogabetzen den eta beste erantzun bat nola jartzen den. C Aukera balio gabetu egiten dugu eta A Aukera hartzen dugu (begiratu arretaz adibidea).



Zalantzarik baduzu, galdetu zaintzaileei.

4. Megafoniaz agindua ematen denean, bete itzazu erantzun-orriaren goiburuan eskatutako datuak: **izena, abizenak, sinadura eta NANA**. Zure **NANA zenbaki eta markekin adierazi beharko duzu** (ikus hurrengo adibidea). Atzerriko dokumentuen kasuan, adierazi haien digituak bakarrik.

N.A.N. / D.N.I.: 14922318

1	4	9	2	2	3	1	8
0	0	0	0	0	0	0	0
1	1	1	1	1	1	1	1
2	2	2	2	2	2	2	2
3	3	3	3	3	3	3	3
4	4	4	4	4	4	4	4
5	5	5	5	5	5	5	5
6	6	6	6	6	6	6	6
7	7	7	7	7	7	7	7
8	8	8	8	8	8	8	8
9	9	9	9	9	9	9	9

Honela markatu
 Marque así



Honela ez markatu
 No marque así



N.A.N. / D.N.I.: 423188

0	0	4	2	3	1	8	8
0	0	0	0	0	0	0	0
1	1	1	1	1	1	1	1
2	2	2	2	2	2	2	2
3	3	3	3	3	3	3	3
4	4	4	4	4	4	4	4
5	5	5	5	5	5	5	5
6	6	6	6	6	6	6	6
7	7	7	7	7	7	7	7
8	8	8	8	8	8	8	8
9	9	9	9	9	9	9	9

5. Koadernotxoa banatzen zaizunean, **adierazi zein azterketa-eredu (A edo B) egokitu zaizun.**

Azterketa eredia / Modelo de examen

A O B O

6. Probako **A ZATIAK 45 galdera** ditu, 1etik 45era zenbatuta

Azken bostak erresebako galderak dira, eta lehenengo 40etako bat baliogabetzen bada bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, galdera guztiei erantzuten saiatu behar duzu.

ADI: Ez dira zuzenduko azterketa-eredua (A edo B) adierazita ez duten erantzun-orriak.

7. **Zigorra:** oinarrietan ezarritakoaren arabera, erantzun oker bakoitzeko erantzun zuzen baten balioaren herena kenduko da. Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitzek ez dute zigorrik izango.
8. Proba «gai» edo «ez-gai» gisa kalifikatuko da eta, «gai» **kalifikazioa lortzeko**, beharrezkoa izango da **oposizio-fasea gaingaitua izatea eta proba honetako 40 puntuetatik gutxienez 20 lortzea**
9. Proba egiteko denbora megafoniaz iragarriko da.

AZTERKETA AMAITUTAKOAN: Erantzun-orriak bi ale ditu, bata zuria da eta bestea horia. Bi orriak banandu eta orri zuria bakarrik entregatu, hori kolorekoa zuk gorde.

Denbora agortu baino lehenago ariketa bukatzen baduzu, jaso eskua eta erantzun-orriaren ale zuria eta koadernotxoa entregatu. Momentu horretan aretotik kanpora atera zaitezke. **Koadernotxoa IVAPen web-orrian argitaratuko da.**

Azterketako **azkeneko 5 minutuetan zure lekuan egon beharko duzu**, denbora bukatu arte.

Denbora bukatzen denean, zaintzaileari erantzun-orri zuria eman eta zuretzat gorde erantzun-orri horia eta koadernotxoa.

Bertaratze-ziurtagiria eskatu baduzu, gogoratu **gunera sartzeko mahaian** jasotzea.

EMAITZEN ARGITALPENA: Ariketa bukatu ondoren erantzun zuzenen txantiloia emango zaizu. Ariketaren behin-behineko emaitzak **apirilaren 3an argitaratuko dira.**

ERREKLAMAZIOAK: Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira behin-behineko emaitzak argitaratu eta hamar egun balioduneko epean.